

Bakardadearen Talaia

Pertsona nagusien artean
bakardade ez aukeratua antzemateko
I. Ekintza Plana

2020-2023 Dokumentu estrategikoa



Servicios sociales, Igualdad y Diversidad
Zerbitzu sozialak, Berdintasuna eta Dibertsitatea

BAKARDADEAREN TALAIA: PERTSONA NAGUSIEN ARTEAN BAKARDADE EZ AUKERATUA ANTZEMATEKO I. EKINTZA PLANA

2020-2023 DOKUMENTU ESTRATEGIKOA

ZUMARRAGAKO UDALA

ERREDAKZIOA ETA MAKETAZIOA: Patricia Martínez-García eta Delicia Aguado-Peláez (Aradia Kooperatiba)

KOORDINAZIOA: Gizarte Zerbitzu, berdintasun eta aniztasun saila

ITZULPENA: ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA

-AURKIBIDEA-

1. Sarrera	5
2. Zer da dokumentu hau?	9
3. Nondik dator?	13
4. Zer da bakardade ez aukeratua?	17
5. Nola esku hartu dezakegu?	21
6. Zerk mugitzen gaitu?	25
7. Bakardadearen talaia	29
8. Nola landu zen?	33
9. Zein baliabide ditugu?	37
10. Faseak	47
11. Ardatzak eta jarduera-lerroak	51
12. Ekintzak	59
13. Nola egiten dugu?	71
14. Ebaluatzia eta jarraipena	75
15. Araudia	91
16. Esperientzia	95
17. Bibliografia	99

Sarrera



-SARRERA-

Bakardadearearen Talaia hau hausnarketa kolektibo baten emaitza da. Badakigu pertsona askok bakardade egoera ez aukeratuak bizi dituztela, eta horrekin kezkatuta gaude. Txostena COVID19aren ondoriozko osasun-krisiaren berrogeialdian idatzi zen. Egun haietan argiago geratu ziren bide-laguntza, afektu eta lankidetzaren beharrak, eta publikotasunaren garrantzia, gure gizarteari eusteko funtsezkoa baita.

Plan hau martxan jarri ahal izateko lehentasunezko tresnak honakoak dira: izaera publikoa eta komunitarioa, eta bizi politiko eta sozialean zaintza zentratzea. Ustekabean, proposamen horien izaera estrategikoa ikusarazi eta konfirmatzen duen egoera batean aurkitu dugu geure burua. Noski, beti hobetzen joateko asmorekin, programa dinamiko eta inklusiboak eraikitzen joateko, auzoetatik eta bertako herritarrengandik hurbil.

Txosten hau elkarrizketen, parte-hartze eremu formal, fisiko eta birtualen, beste esperientzia batzuekiko inspirazioen, irakurketa eta ikerketen, eguneroko ikaskuntza txikien emaitza izan da. Azken finean, proiektu kolektiboa da, eta gure esku ditugun tresnak hartu ditu oinarritzat, etorkizunera begira lan egiteko. Eskerrik asko Talaia honekin bat egin duten pertsona guztiei, bakardade ez aukeratuaren inguruko ikuspegia aberasteagatik. Eta eskerrik asko, alde zurretik, etorriko direnei ere.

**Zer da
dokumentu hau?**





-ZER DA DOKUMENTU HAU?-

Esku artean duzu **BAKARDADEAREAREN TALAIA: PERTSONA NAGUSIEN ARTEAN BAKARDADE EZ AUKERATUA ANTZEMATEKO I. UDAL PLANA**. Zumarragako Udalaren jarduera estrategikoa bideratuko duen ibilbide-orria dago jasota dokumentu honetan. Helburua herriko pertsona nagusien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzea da, eta datozen 3 urteetako jarduna gidatzeko dago aurreikusita, hau da, **2020-2023** aldirako. Izan ere, planak etorkizunera begirako bokazioa izan arren, garrantzitsua iruditzen zaigu unean-unean geldialdiak egite, ordura arte egindakoa ebaluatzeko, eta hurrengo aldirako zer sustatu eta hobetu behar den ohartzeko.

Horrela izanik, Bakardadearearen Talaia 65 urtetik gorako pertsonengan pentsatzen eraiki da batez ere, modu indibidual zein kolektiboan, baina kontuan hartu behar ditugunak ez dira haiek bakarrik. Plan honek Zumarragako herritar guztiengan eragin nahi du. Elkarte, erakunde publiko, denda, osasun-sektore, zaintzaile... eta herritar guztiengana heldu nahi dugu. Izan ere, uste dugu denon inplikazioa beharrezkoa dela bakardade egoera ez aukeratuekin lan egiteko.

Dokumentu hau bost bloke handitan dago banatuta. Lehen ongi etorri moduko bat da, eta Planaren nondik norakoak azaltzen ditu. Bigarrenak Bakardadearearen Talaiaren oinarriak zehazten ditu. Hau da, zer den bakardade ez aukeratua, eta horren aurkako zainketa komunitarioen proposamena. Hirugarrena metodologiari buruzkoa da. Gaur egun udalerrian ditugun baliabideen indargune eta ahulguneak ere planteatu dira, auzoka.

Hemendik aurrera, planteatutako ibilbidea lau fase eta bost bidetan banatu da **KONTZIENTZIA SOZIALA ETA BALIO ALDAKETA, BAKARDADE EZ AUKERATUAREN MAPA, ONGIZATEA ETA OSASUNA, AUTONOMIA ETA AHALDUNTZEA, ETA SAREKO LANA.** Ardatz horietako bakoitzak lerro estrategiko eta ekintza batzuk ditu erlazionatuta. Horiek garatzen joatea da asmoa. Gainera, gida txiki bat jaso da, Plan honen beraren jarraipen eta ebaluazioa egiteko. Beharrezko prozesua da, etorkizuna hobetzen joan ahal izateko ikaskuntza moduan.

Azkenik, Bakardadearearen Talaiaren inguruko araudiari buruzko erreferentzia zerrenda bat, beste herri batzuetan garatzen ari diren esperientzia inspiratzaileetako batzuk, eta, azkenik, dokumentu honen oinarrian dagoen bibliografia txiki bat aurkituko dituzu.

**Nondik
dator?**



-NONDIK DATOR?-

Zumarragako Udalak bat egin du gure inguruko erronka demografiko eta sozialei erantzuteko xedea duten ekimenekin. Erronka horiek lotuta daude bizi-itxaropenaren handitzearekin, biztanleriaren zahartzearekin, eta familia eta elkarbizitza ereduaren aldaketekin. Zumarragak 9.767 biztanle zituen 2019an. 65 urtetik gorakoen portzentajea % 24,48koa da (Gipuzkoan % 22,1). 85 urtetik gorako pertsonak gero eta gehiago dira. Berri ona da bizi-itxaropena handitzea, eta ulertzen dugu bizi-kalitatea ere hobea dela, orokorrean, baina gai horrek beste kezka batzuk jartzen ditu mahai gainean, eta erakundeek horiei erantzun behar diete. Hori dela eta, Zumarragak **EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK** ekimenarekin bat egin zuen 2014an. Udalerri moduan, herritar nagusien beharrezanentzuteko konpromisoa hartu zuen, eta, noski, baita udalerriaren izaera lagunkoia lantzeko ere. Horren emaitza izan zen Zumarragako Udalaren *Lagunkoitasunaren Diagnostikoa eta Plana* (2016-2019). Matia Fundazioak burutu zituen lan biak, eta helburu nagusia eremu fisiko eta sozialak hobetzen joatea izan zen.

Bestalde, Zumarragak eredu sozial eta ekonomikoaren eraldaketei erantzun die. Dinamikak gero eta indibidualizatuagoak dira, zainketa-lanen antolaketa sozialak gabezia asko ditu, eta ez dago baliabide publiko nahikorik. Hori guztia dela eta, udalerrriaren kohesio eta elkartasun faltak kezkatzen gaitu, babesgabetasun egoerak ugaritzeko arriskua baitago. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzu, Berdintasun eta Aniztasun sailak hainbat proiektu jarri ditu martxan, arazo horiek identifikatu eta horietan esku hartzeko.

Horien artean daude honakoak: **ANIZTASUN ETA BABESGABETASUN SOZIALAREN DIAGNOSTIKOA**, herritarren partaidetzari buruzko EHUren Parte Hartuz ikerketa-taldeak egina, eta **ZUMARRAGA, ZAINKETA KOMUNITARIOETAN OINARRITUTAKO EREDU BATERANTZ** izeneko txostena, Aradia Kooperatibak egindakoa. Lehenaren helburua herritarren beharrian eta kezkek aniztasunaren ikuspegitik aztertzea izan zen; eta, bigarrenarena, izaera komunitarioa sendotzen joatea, herritar guztientzako ongizate-iturri gisa. Horri gehitu behar zaio **ELKARZAIN** proiektua ere. Horren helburu nagusia udalerrian zainketaren kultura sustatzea da. Horretarako, sentsibilizazioa eta gaikuntza erabili ziren tresna gisa.

Aurreko lan horietan pertsona nagusi askoren bakardade eta isolamenduarekiko kezka adierazi zen. Hori dela eta, arazo hori lehentasunezkoa da arlo horretan lanean jarraitzeko. Batetik, pertsona nagusien bizi-kalitatea hobetu nahi dugu, eta, bestetik, zaintza-lana erakunde ekintzaren eta ekintza komunitarioaren erdian jartzen dituen udalerririk bat eraiki. Hori da Bakardadearearen Talaiaren ikuspegia eta konpromisoa.

**Zer da
bakardade
ez aukeratua?**





-ZER DA BAKARDADE EZ AUKERATUA?-

Bakardade ez aukeratua (hemendik aurrera **BEA**) agenda instituzionalaren parte bihurtu da udalerrri askotan, baita lurralde mailan ere. Agenda publikoan sartzea funtsezkoa da, izan ere, esan nahi du BEA fenomeno sozialtzat hartzen dugula, ez dela eremu pribatuan geratzen den arazo indibidual soil bat. Era berean, BEA gerturatzea kontu konplexua da; izan ere, hurbiltzeko modu asko egon daitezke, errealitateak aldakorrak eta anitzak baitira. Hala ere, zer den definitu eta mugatu behar dugu, fenomeno bera lantzeko ekintzak martxan jarri ahal izateko.

Plan honetan, honela ulertzen dugu BEA: laguntza-sare eta harreman sozial faltaren ondorioz sortzen den eta pertsonari ondoeza eragiten dion esperientzia. Pertsona guztiei eragin ahal die, baina Talaiaren honetan pertsona nagusiengan zentratuko gara bereziki. Zahartzaroaren bizitza-zikloari lehentasuna ematearen arrazoia da aldi horretan gutxitzen direla batez ere laguntza-sareak eta harremanak (erretiroa, denbora produktibotik kanpo geratzea, alarguntsa, lagunak galtzea, parte-hartze sozial txikiagoa, mugitzeko zailtasunak, egoitzan sartzea...). Noski, badakigu pertsona nagusien artean denetik dagoela, talde heterogeneoa dela.

BEAren subjektibotasuna dela eta, hurbilketa dibertsifikatua eta pertsonalizatua egin behar da. Gizarte-ekintza mota hau ezin da azterketa sinplifikatu batean geratu. Askotan, bakardadea neurtzeko adierazleetako bat bakarrik

bizi diren pertsona kopurua da. Zumarragan 65 urtetik gorako 575 pertsona bizi dira bakarrik. Horien % 73a emakumeak dira. Hau da, gero eta emakume nagusi gehiago bizi dira bakarrik. Hala ere, BEA ezin da zifra horretara mugatu.

Fenomeno horri ondo heldu nahi badiogu, kontuan izan behar dugu BEAn hainbat faktorek eragiten dutela, hala nola klasea, dibertsitate funtzionala, adina, generoa edo jatorria, beste batzuen artean. Beraz, hainbat gai hartu behar dira aintzat. Batetik, euskal kultura bera daukagu: familia da abandonuaren eta ezbeharren aurkako babes nagusia.

Kultura horren oinarrian genero-egitura bat dago, eta, horren arabera, bizi-baldintzak eta baliabideak eskuratzeko aukerak ez dira berdinak emakume edo gizonentzat. Migrazioaren aspektuei ere erreparatu beharko genieke BEAren inguruko beharrianak ikertzean. Zumarragako herritarren % 8,44 atzerrian jaiotako pertsonak dira. Eta, bestetik, aisialdi ereduak birplanteatu beharko genuke, batez ere kontsumoan oinarritzen baita, eta hori ez da irigarria pertsona guztientzat. Udalerriaren beraren banaketa eta auzoen irisgarritasuna ere hor daude.

Azken finean, Plan honek bakardadea arazo kolektibo moduan planteatzen du. Beharrian indibidualak eta esperientzia anitzak aitortu eta esku hartzea eskatzen duen gaia da.

**Nola esku hartu
dezakegu?**




-NOLA ESKU HARTU DEZAKEGU?-


Aurreko orrialdeetan azaldu den bakardadearen kontzepzioak adierazten du zein den Bakardadearen Talai honetan txertatu nahi den ikuspegia. Batetik, uste dugu kaltetutako pertsonen protagonismoa izan behar dutela martxan jartzen diren ekintzetan, beraz, ekintzek beharizan zehaztutara egokitu beharko dute. Bestalde, badakigu gizaki gisa zein babesgabeak garen, eta denok behar dugula, jaiotzen garenetik, zaintza-sare eta harreman-sare bat. Horiek aldatuz doaz bizitza-etaparen arabera.

Pertsona guztion babesgabetasuna onartuz gero, ulertuko dugu bakardade ez aukeratua ez dela herritar-sektore batzuen arazo soil, baizik eta gizarte osoaren ardura. Plan honek pertsona nagusiak lehenetsi ditu, baina bakardadearen gaia lantzean herri osoa inplikatu behar da, ekimen integral eta zeharkakoak martxan jarritz. Horretarako, funtsezkoa da zainketa komunitarioak tresna eraldatzaile gisa txertatzea, pertsonen elkarrekin lan egin eta gizartean ditugun arazoei konponbideak bilatzeko, bakardadea barne.

Hainbat ikerketak erakutsi dute bakardade ez aukeratua arintzeko jarduera eraginkorrenak interakzio soziala eta babesa sendotzera bideratutakoak direla, hau da, trebetasun sozialak landu eta kaltetutako pertsonak ahalduntzeko jarduerak, eta baliabide komunitarioak mugiarazten dituztenak. Sozializazioan eta pedagogian ere sakontzen da; izan ere, uste dugu epe luzera aldaketak lortzeko, herritar guztien balioen eraldaketa, gaikuntza eta ikaskuntza behar direla. Beraz, zainketen ardura denon artean zabaldu behar dugu, babes-sare formal zein informal sendoak izateko eta bakardade ez aukeratuari aurre egiteko. Etorkizunean, baliabide publikoak eta komunitate sarea uztartuko genituzke bakardade egoerak prebenitzeko, bizi-eremu irisgarri, inklusibo eta solidarioak sustatuz.

Zerk
mugitzen gaitu?





-ZERK MUGITZEN GAITU?-

Plan honek oinarrizko printzipio batzuk ditu, hala nola:

IRISGARRITASUNA Parte-hartzea bermatzeko mekanismoak sortzea, pertsona bakoitzaren gaitasun ekonomiko, gaitasun kognitibo, fisiko, pertsonal eta teknikoak edozein direla ere.

GAIKUNTZA. Eragile sozialei bakardade ez aukeratuari buruzko gaikuntza emateko ikuspegi pedagogikoa txertatu beharko da. Hau da, denoi eragiten digun gai kolektiboa da, eta ezin dugu norbanakoaren ardurapean utzi.

SORMENA. Sormena funtsezko tresnatzat hartzen dugu, ekintza berritzaileak irudikatu edo egokitzeko.

TESTUINGURUA. Egoera desberdinetan indibidualtasunetik kolektibora doazen beharrietara egokitzea. Betiere, auzo bakoitzaren egoera berezia kontuan izanda.

ZAINTZAK. Bakardade ez aukeratuaren gaia tratatzeko, bizitza erdigunean jarri behar dugu. Eta, horrekin batera, paradigma berriei zabaldu behar diegu bidea zainketei dagokienez, ez soilik maila indibidualean, baizik eta, bereziki, komunitarioan.

AHALDUNTZEA. Autokonfiantza, barne-indarra eta pertsonen ahotsa sustatzea, maila indibidual eta sozialean ahaldundu eta errekonozimendua bultzatzeko asmoz

INTERDEPENDENTZIA. Afektu, ongizate eta zainketen beharrianak estaltzea. Ulertu behar dugu izaki sozialak gara, eta harremanak eta elkarren laguntza behar ditugula. Horri dagokionez, auzokideen arteko sareak eta komunitate-sareak funtsezkoak dira..

INTERSEKZIONALITATEA. Udalerrietan daukagun egoeren aniztasuna kontuan izan behar dugu (familia-laguntza, auzoa, klasea, aniztasun funtzionala, adina, generoa, hizkuntza, heziketa-maila, orientazio sexuala, arraza...).

MESTIZAJEA. Udalerri bakoitzean une bakoitzean dagoen aniztasun-egoeraren arabera jardun behar dugu, elkarren arteko topaketa eta izaera herritarra bideratuz, eta pertsona eta kolektiboak erlazionatzeko topaketa-eremuak sortuz.

PARTE-HARTZEA. Parte-hartzea funtsezkoa da geure buruarekin bat egiteko eta konponbideak elkarlanean aurkitzen ikasteko.

ERREKONOZIMENDUA. Gure gizartea gazteen gaitasun eta balioetan zentratzen da, baina ahaztu egiten dugu urteekin irabazten den ezagutza eta aberastasuna. Bizi-ibilbide luzeena duten pertsonen ezagutzak eta gaitasunak ezagutu eta baloratu behar ditugu.

SAREAK. Gizarte eragileen sareko lana sortu edota sendotzea, hala nola eragile politiko, tekniko eta sozialena, baita herritar ez asoziatuena ere. Hainbat arlo (kultura, kirola, aisialdia, osasuna, boluntariora...) barne hartuko dituen sare integral bat egiten joatea.

GARDENTASUNA. Administrazio hurbilagoa, interaktiboagoa eta arduratsuagoa behar dugu. Indargune eta ahulguneak antzemateko eta horren arabera lan egiteko ebaluazio-konpromisoarekin.

ZEHARKAKOTASUNA. Arlo eta sektoreen arteko lankidetzak eta horizontaltasuna, ahaleginak gehitzen joateko..

**Bakardadearen
Talaia**


-BAKARDADEAREN TALAIA-

TALAIA. Talaia bat leku altu batean kokatutako dorrea da, ingurua begiratzeko aukera ematen duena. Gure talaiak bakardade ez aukeratua antzemateko eta horren arabera lan egiteko begirada kontziente eta aktiboa izan nahi du. Hala ere, dorrea esparru militarrekin oso lotuta dago, eta zainketekin lotutako herritar-lana kanpo geratzen da. Horregatik, gure talaia berezia da.

ETXEA. Aspektu hori zuzentzeko, talaian etxola bat dago, izan ere, etxearen ideia gure gertuko pertsonen afektuarekin lotzen dugu.

BIHOTZA. Eta ideia hori sendotzeko, tximiniatik bihotz batzuk irteten uztea onena. Bihotza ere afektuarekin eta zaintzarekin lotua baitago.


ESKUA. Azkenik, eraikuntza inguratzen duen eskuaren bidez zainketaren ideiarda itzultzen gara, eta boluntarioaren figura ere kontuan hartzen da, eskuak beti izan baitira haien enblema. Boluntariora oso lotua dago edadetuekin, lan handia eta askotan komunitarioa egin duten pertsonak baitira.





**Nola
landu zen?**

Talaiara igo zaitez!



Talairara
igo zaitez!

-NOLA EGIN ZEN?-

DOKUMENTAZIOA. Lehenik eta behin, bakardade ez aukeratuaren inguruko ikerketak aztertu dira, fenomenoak ondo ulertzeko asmoz. Bestalde, hainbat udalerritan martxan jarritako bestelako plan eta proiektuak aztertu dira, inspiragarriak izan daitezkeen beste esperientzia batzuk ezagutzeko. Azkenik, Zumarragako herriaren argazkiari begiratu diogu, eta eskura dauden baliabideei.

TAILERRAK. Bi espazio multzo diseinatu dira 2020ko martxoan, "Martxoan, igo talaira!" lelopean. Hasiera batean, auzoetan tailerrak egin nahi izan ziren baliabideen mapa egiteko, eta beste tailer batzuk sektoreka, herrian martxan jar daitezkeen proposamenetan pentsatzen hasteko. Sektorekako tailer horiek eten egin behar izan ziren, COVID19aren osasun-krisiaren ondoriozko neurriak bete ahal izateko. Horregatik, espazio horietako batzuk maila birtualera pasatzea erabaki zen.

ONLINEFOROA. Edukiak eta dinamikak online foro batera pasa ziren, eta egokitu. *Moodle* teknologia erabili zen, eta 2020ko apirilean egin zen.

AZKEN ERREDAKZIO LANA. Esku artean duzun testuaren idazketa eta maketazio lana.

Zein

baliabide ditugu?





-ZEIN BALIABIDE DITUGU?-

Faktore geografikoak (orografia), ekonomikoak (baserritarra eta industrialak), politikoak eta sozialak (trena, migrazio-mugimenduak, auzokide dugun Urretxu herriarekiko muga porotsuak) kontuan izanda, Zumarragako auzo bakoitzak bere idiosinkrasia partikularra dauka. Horregatik, baliabide nagusien argazki hori egingo dugu (hiri-eremuetatik ondasun eta zerbitzuetara, komertzioetik komunitate loturetarara), ea zeintzuk bideratu ahal ditugun bakardade ez aukeratuaren (hemendik aurrera **BEA**) arazoari heltzeko.

A EREMUA: EITZA. Zumarragako lehenengo gunea nortasun handiko auzotzat hartzen da. Auzokide-harreman sendoak ditu, eta, horrekin ulertzen da bakardade ez aukeratuaren arazoa beste leku batzuetan baino txikiagoa izan daitekeela. Hala ere, aldaketa handiak izan ditu, eta sare hori zatituz joan da. Batetik, auzokide berriak heltzen direnean laguntza-talde sendoak sortzen dira (lokalak, iritsi berriak), baina topaketarako espazio falta somatzen da. Bestalde, bertako komertzioa apurka-apurka galtzen ari dela ohartu gara, eta auzoa apur bat utzita dagoela. Horrek irisgarritasun falta dakar, zerbitzuekiko konexioa ez da hain ona, bereziki pertsona nagusientzat. Lokalizazioen artean, San Gregorio ermita eta Topalekua (sustatu beharrekoa) nabarmenduko genituzke. Sare sozialari dagokionez, Auzokideen Elkarte, Jai Batzordea eta Irrika Sozietatea daude.

B EREMUA: GELTOKIA ZENTROA, URTUBI. Zentroa irisgarriagoa da, eta komertzio zein zerbitzu publiko gehienak daude eskura. Erosotasun horiek etxebizitzaren prezioa igotzen dute, beraz, herritar askorentzat ez da irisgarria, eta zentrotik kanpora joan behar dute bizitzera. Hala ere, auzokideen arteko harremanari dagokionez, eremurik deskonektatuena da, beraz, handiagoa da bakardade ez aukeratua gertatzeko arriskua. Lokalizazioei dagokienez, bereziki nabarmendu nahi dira Osasun Zentroa, Gure txoko, Merkatua eta Zelai Arizti. Sare sozialei dagokienez, sare komertziala eta Kultur etxea ditugu; hainbat kultur eta gizarte elkarte daude bertan.

C EREMUA: ORBEGOZO-ARTIZ-URDANETA-LEGAZPI. Eremu hori Zumarragako garairik industrialenak baldintzatua geratu da, bai lokalizazioari dagokionez (trenbidearen beste aldean), baita paisaiari dagokionez ere. Hala ere, zentrotik eta zerbitzuetatik gertu dago, beraz, leku ona dela ulertzen da. Loturei dagokienez, bi idiosinkrasia desberdin nabarmenduko genituzke: Batetik, Zentroa-Geltokia-Uturbi eremuaren estilokoa, konexio gutxikoa; eta, bestetik, esaterako, Grupo Legazpiko sektorekoa, komunitate sentsazio handikoa. Lokalizazioei dagokienez, La Salle-Legazpi ikastetxea, Musika Eskola, Ispilla kiroldegia eta Beloki pilotalekua gune zentralak direla ulertzen da. Eremu horretan kokatutako Osasun Mentaleko Zentroa ere kontuan hartzen da.

D EREMUA: ARGIXAO, ÁNGEL CRUZ JAKA, BIDAURRETA, IÑAKI LINAZASORO, BUSCA ISUSI, IZAZPI, IPAR HAIZEA. Auzo berriak dira eta jende gaztea bizi da, orokorrean. Deskonektatuago daude, bai fisikoki (zonalderik altuenean daude, beraz, ez da oso irisgarria), bai sinbolikoki (zerbitzu gutxiago), baita afektiboki ere (auzokideek ia ez dute elkar

ezagutzen). Gure kezka da azkenean lo egiteko auzo hutsak izaten amai dezaketela. Hori horrela izanik, pertsona nagusien (eta gainerakoen) bakardade egoera ez aukeratuak arazo bihur daitezke etorkizunean ere. Beraz, garrantzia eman nahi diegu berdeguneei eta Ospitale zein nagusientzako egoitza zentroari; izan ere, egoiliarrek bakardade egoera ez aukeratuak bizi ohi dituzte, eta harreman sozialak oso ahulduta dituzte.

E EREMUA: LETURIAK. Leturiatarren plaza, Joxe Miguel Barandiaran eta Antonino Oraa eremuan 50, 60 eta 70eko hamarkadetan estatuko hainbat lekutatik etorritako migratzaile asko jarri ziren bizitzen. Hiriko beste eremu batzuetakoak baino ekonomikoagoak ziren etxeetan instalatu ziren. Aspektu hori eta Zumarragaren orografia propioa kontuan izanda, herri txiki moduko bat sortu zen Zumarragaren barruan. Leturiatarren plaza inguruan ez da hain handia pertsona nagusien bakardade ez aukeratuaren fenomeno. Lotura komunitarioak sendoak dira, tokiko komertzioa oso errotua dago eta udal zerbitzuen aldeko apustua egin da (horien kudeaketa oso positiboki baloratzen da), beraz, irisgarritasun falta eta bertako jendearen zahartze-prozesua nahiko ondo eramaten dira. Hala ere, auzo izaera hori apur bat ahultzen dela nabarmendu da, jende berria etorri delako, gehienak migratzaileak. Deskonexioa nabaritzen ari da, eta, horrekin batera, mesfidantza. Funtsezko gunetzat hartu dira El Salvador auzo-etxea, El Salvador parrokia eta inguruko dendak (harategia, okindegia, fruta-denda, estankoa, eta, bereziki, farmazia). Arrandegi baten eta auzokide-elkarte baten falta somatzen da.

F EREMUA: ETXEBERRI. Etxebarri auzoa da leku berezietako bat. Espainiar estatutik 50, 60 eta 70eko hamarkadetan heldutako migrazioak markatua. Zumarragaren kanpoko aldean dago kokatuta, eta familia handi bat dela esan genezake. Kasu horretan ere, deskonexioa, tokiko komertzioaren gabeziak eta azpiegitura falta auzokideen arteko lotura sendoen bidez arindu izan dira, baina ahultze bat nabaritzen ari da hemen ere. Ez dago berez auzokide-elkarterik, baina Jai Batzordea aipa dezakegu. Gainera, Etxebarri Hotela ere hor dago, zonaldeko lokalizazio garrantzitsu gisa.

G EREMUA: AGINAGA. Aginaga auzoa Azkoitiko auzo izan zen 1989 arte. Baserritar izaera handikoa dela nabarmendu behar dugu. Ondo kohesionatutako lekua da, baina udalerriarekiko lotura gutxikoa. Baserriak eta eskola zaharra aipatu behar dira. Bertan kokatzen da Oleta sozietatea.

H EREMUA: BESTELAKOAK. Urretxurekin partekatzen diren baliabideak edo urrunago geratzen diren beste eremu batzuk, hala nola Antigua bera.

ZONALDEAK GAIKA BANATUTA

GAIK NABARMENDUAK	A	B	C	D	E	F	G	H
	EITZA	GELTOKIA ZENTROA	ORBEGOZO ARTIZ URDANETA...	ARGIXAO BUSCA ISUSI IZAZPI ...	LETURIATARRAK	ETXEBARRI	AGINAGA	BESTELAKOAK
IRISGARRITASUNA	Tartekoa	Handia	Tartekoa	Oso txikia	Oso txikia	Txikia	Txikia	
AUZOKIDE SAREAK	Nolabaitekoak, auzokide berri eta zaharren artean banatuta	Ahulduta	Ahulduta	la ez dago	Sendoak. Baina auzokide berriak ere batu behar dira	Sendoak. Baina auzokide berriak ere batu behar dira	Oso sendoak	
EGITURA SOZIALA	Jai Batzordearen inguruan	Jai Batzordea eta hainbat elkarteren egoitza			Auzokideak antolatu beharra	Jai Batzordearen inguruan	Jai Batzordearen inguruan	
TOKIKO KOMERTZIOA	Azken urteetan ahuldu egin da.	Gero eta antolatuago. Merkatua	Tartekoa	la ez dago	Oinarrizko zerbitzuak, baina pixka bat ahulduta	la ez dago	Baserriak	
TOPAGUNEAK	Korta taberna	Zelai Arizti parkea, Bidegorria		Estadioa Parkeak	Leturiatarren plaza	Oleta taberna Bidegorria	Oleta sozietatea	La Antigua hiri-baratzeak

NABARMENDUTAKO BALIABIDEAK ZONALDEKA (1/2)

BALIABIDEAK	A	B	C	D	E	F	G	H
	EITZA	GELTOKIA ZENTROA	ORBEGOZO ARTIZ URDANETA...	ARGIXAO BUSCA ISUSI IZAZPI ...	LETURIATARRAK	ETXEBARRI	AGINAGA	BESTELAKOAK
NAGUSIENTZAKO ESPEZIFIKOAK		Gure txoko Tipi Tapa			Jubilatuen Etxea			
KULTURALAK		Zelai Arizti Liburutegia	Musika Eskola		El Salvador auzo-etxea			
KIROLA	Eitza Pilotalekua eta San Gregorio	Zelai Arizti pilotalekua	Beloki pilotalekua Kiroldegia	Argixao udal estadioa			Aginaga pilotalekua	
HIRIKO PARKEA	Parke botanikoa	Zelai zuhaiztia Urtubi Bidegorria		Izazpi parkea		Bidegorria		Antiguako jolas-eremua
BAZKIDE SANITARIOAK		Osakidetzako anbulatorioa	Osasun Mentaleko Zentroa	Ospitale Gerontologikoa Eguneko Zentroa				Urretxuko Eguneko Zentroa
GIZARTE ZERBITZUAK			Kaleko hezitzaileak, EELZ, Tele-asistentzia, itxaropenaren telefonoa					
FARMAZIAK		4			1			
BESTE BATZUK		Etxeko lanak eta zaintza lanak egiten dituzten profesional partikularrak						

RECURSOS DESTACADOS POR ZONAS (2/2)

BALIABIDEAK	A	B	C	D	E	F	G	H
	EITZA	GELTOKIA ZENTROA	ORBEGOZO ARTIZ URDANETA...	ARGIXAO BUSCA ISUSI IZAZPI ...	LETURIATARRAK	ETXEBARRI	AGINAGA	BESTELAKOAK
ERLIJIO ZENTROAK	San Gregorio ermita	Asuncion parrokia			El Salvador parrokia		San Martin parrokia	Antiguako ermita
PRESTAKUNTZA		CEPA	Legazpi-La Salle Ikastetxea					UGLE UZ Haurreskola UZ Ikastola Gainzuri I.P. J.M. Iparragirre UZ Euskaltegia
ZENTROAK	Gazte Txokoa (Topaleku)				Gazte Txokoa			
GAZTE ZENTROAK		Udaletxea Udaltzaingoa						Emakumeen etxea

Faseak



-FASEAK-

Talaia lau fase zirkularrez osatu da udalerrri honetan bakardade ez aukeratuari (hemendik aurrera **BEA**) aurre egiteko. Faseak: prebentzioa, antzematea, esku-hartzea eta ebaluazio eta jarraipena.

PREBENTZIOA. Batetik, BEAren fenomenoak sozializatu behar dugu, eta gizarte moduan ulertu behar dugu denon inplikazioa behar duen arazoa dela. Bestalde, herritarrak elkar konektatzeko ekintzen alde egin behar dugu, bizitza erdigunean jarriz, eta, ahal den neurrian, BEA kasuak agertzea saihestuz.

ANTZEMATEA. BEA egoeran dauden pertsona nagusiak identifikatzea. Beren egoera partikularra, beharizanak eta potentzialtasunak ezagutzea, esku-hartzea pertsonalizatua izateko.


ESKU-HARTZEA. Ekintza indibidual eta kolektiboak martxan jartzea BEA arintzeko asmoz.

EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA. Ekintzen ebaluazio eta jarraipena egiteko konpromisoa hartu behar dugu; horrela, oinarritzko irizpideak betetzen direla bermatuko dugu eta Planak biziak amaitzea saihestuko dugu. Gainera, Bakardadearen Talaiaren ebaluazio orokor bat egin behar dugu Planaren lehenengo indarraldian (2020-2023), helburuen lorpenari buruzko hausnarketa egiteko. Betiere, ikuspegi konstruktibo batetik, sustatu edo hobetu beharreko guztian pentsatuz.




**Ardatzak eta
jarduera-lerroak**

z



-ARDATZAK ETA LAN LERROAK-



Hemendik aurrera ardatz eta lerro estrategiko batzuk markatu dira pertsona nagusien (BEAri aurre egiteko). Hurrengo atalean zehaztuko dira 2020-2023 aldian garatzeko planteatutako ekintzak. Ardatzak honakoak dira:

1. ARDATZA: KONTZIENTZIA SOZIALA ETA BALIO ALDAKETA

L1: SOZIALIZAZIOA

L2: KONPROMISO POLITIKO ETA TEKNIKOA

L3: ESTEREOTIPOAK EZABATZEA

2. ARDATZA: BAKARDADE EZ AUKERATUAREN MAPA

L1: IDENTIFIKAZIOA

L2: BALIABIDEEN INBENTARIOA

3. ARDATZA: ONGIZATEA ETA OSASUNA

L1: OSASUN KOMUNITARIOA

L2: OHITURA OSASUNGARRIAK

L3: HIRIGINTZA LAGUNKOIA

L4: ETXEBIZITZA PARTEKATUAK

4. ARDATZA: AUTOKONTZIENTZIA ETA AHALDUNTZEA

L1: TREBETASUN SOZIALAK

L2: KAPITAL SOZIALAREN ERREKONUZIMENDUA

L3: BAKARDADEAREN AURKAKO LIDERGOAK

5. ARDATZA: SAREKO LANA

L1: GOBERNANTZA

L2: ZAINDARIEN TALAIA

L3: TOPAGUNEAK

L4: EGITURA SOZIALA ETA BOLUNTARIOTZA

L5: BABESGABETASUN EGOERA HANDIENEAN
DAUDEN NAGUSIEI ZUZENDUTAKO BIDE-LAGUNTZA

1. ARDATZA: KONTZIENTZIA SOZIALA ETA BALIO ALDAKETA

HELBURUA: BEAren pertzepzioari egiturazko ikuspegi batetik heltzea. Ulertu behar dugu maila indibidualean eragin arren, arazo soziala dela, eta konponbidea bilatzeko jarduera bateratu bat behar dugula.

JARDUERA-LERROAK:

L1: SOZIALIZAZIOA. Bereziki nagusiei eragiten dieten bakardade egoeren inguruan herritar guztiak kontzientziaztea, ikuspegi komunitario batetik heldu ahal izateko.

L2: KONPROMISO POLITIKO ETA TEKNIKOA. BEA egoeretan inplikaturako eragile politiko eta teknikoak sentsibilizatzeko gaikuntza, politika publikoetan zeharkako ikuspegi bat txertatzen joateko asmoz.

L3: ESTEREOTIPOAK EZABATZEA. Pertsona nagusien kolektiboarekin lotzen diren estereotipo eta rolak zalantzan jartzea.

2. ARDATZA: BAKARDADE EZ AUKERATUAREN MAPA

HELBURUA: BEAren konplexutasunari modu integralean heltzea, maila indibidualetik kolektibora pasa ahal izateko.

JARDUERA-LERROAK:

L1: IDENTIFIKAZIOA. BEA egoeran daudela uste dugun pertsona nagusiak identifikatu eta harremanetan jartzea. Fenomeno horri buruz daukaten ikuspegia eta beren beharrian eta interesak ezagutzea, arazoari modu pertsonalizatuan ekiteko eta bakardade-esperientzia desberdinak ezagutzeko. Mapatze lan horri esker, martxan jartzen diren jarduerak egokitzen joan ahal izango dugu.

L2: BALIABIDEEN INBENTARIOA. Udalerrian BEA egoerak tratatzeko eskura dauden giza baliabideen eta baliabide materialen inbentario bat sortu eta mantentzea

3. ARDATZA: ONGIZATEA ETA OSASUNA

HELBURUA: Zahartze-prozesu osasungarriak izateko estrategiak sortzea, harreman sozialetan arreta jarritz, BEA egoerak prebenitzeko ekintza moduan.

JARDUERA-LERROAK:

L1: OSASUN KOMUNITARIOA. Osasun arloko profesionalak inplikatzea pertsona nagusien BEA egoerak antzeman eta tratatzeko.

L2: OHITURA OSASUNGARRIAK. Jarduera fisikoa eta bizi ohitura osasungarriak modu koordinatuan sustatzea, pertsona nagusiekin lan egiten duten profesionalen artean.

L3: HIRIGINTZA LAGUNKOIA. Espazio publikoen diseinua eta hirigintza-plangintza bideratzea, garapen komunitario gisa, pertsona nagusiak elkartzeko lekuak sortuz, irisgarritasuna kontuan izanda.

L4: ETXEBIZITZA PARTEKATUAK. Etxeko BEA egoerak arintzeko neurri gisa, etxebizitza partekatuak sustatzea.

4. ARDATZA: AUTOKONTZIENTZIA ETA AHALDUNTZEA

HELBURUA: Pertsona nagusien egoeraren analisi kritiko eta konplexua sustatzea. Izan ere, haiek izan behar dute beren bizitzan protagonista aktibo, eta ahalduntze indibidual zein kolektiboan sakondu behar dugu.

